

AITA LUIS VILLASANTE
(Bilbo, 2008ko azaroak 25).

Bizkaiko Aldun Nagusi JOSE LUIS BILBAO jaun agurgarria, ANDRES URRUTIA euskaltzainburu eta jaun ospetsua eta jaun andreok. Egun on eta "Bake eta on"! Aita Villasantek zioen bezala.

Arantzazuko fraide frantziskotarrantzat egun berezia eta gogoangarria da gaurkoa, hemen Bizkaiko Diputazioan gure Arantzazuko fraide zen Aita Luis Villasanteren obraren bilketa, digitalizazioa eta argitalpenerako prestalanak egin ahal izateko hitzarmenaren sinadura egiten delako.

Arantzazun Bizkaiko fraide ospetsu asko bizi izan dira historian zehar eta oraindik ere bizi dira; bereziki azken urteotan hil diren bi bizkaitar gogora nahi ditut, Aita Luis Villasante gernikarra eta baita ahaztezina dugun Aita Bitoriano Gandiaga, poeta arrazuarra. Hasieratik eta gaur gure aita Luis Villasante aintzat hartzearren nire eta Arantzazuko frantziskotarron esker ona adierazten dizuet.

Aita Luis Villasante, jakina den bezala, Gernikan jaio zen 1920ko martxoaren 22an eta 2000.go abenduaren 2an hil zen Arantzazun bertan 80 urterekin. Garai haietan fraidegaiak egiten ohi zuten bezala, Aita Luisek ere fraidegaien ibilbidea egin zuen. 6 urte zituela bere ama galdu zuen eta hamarrek bere aitak Gernikatik Arantzazura eramane zuen; Arantzazun bertan hasi zituen lehen ikasketak, gero Forua, Zarautz, Nafarroako Oliten eta berriz ere Arantzazura itzuli zen arte, eta Arantzazu bere bizitzako kabi gozoa izango zen.

Ibilbide guzti hau Frankoren gerratea tartean zelarik eta soldaduska ere egin behar izan zuelarik. 1945an apaiztu zen eta gero nagusiek Comillasko Unibertsitatara bidali zuten teologian doktoradutza egin zezan. Ezaguna da baita ere bere doktoradutzako tesia: Maria de los Angeles Sorazu frantziskotar lekaiame konzepzionista zumaiarraren bizitzaz eta doktrinaz egin zuen. Eta horrela 1947an berriz Arantzazura itzuli eta hil artean han bizi izan zen. Denetara 53 urte Arantzazun, nahikoa urte Arantzazu barreneraino ezagutu eta maitatzeko ere.

Bere bizitzako nondik norakoak baino interes handiago du, noski, bere **izaerak**. Ez luzatzearren, bere izaeraren bizpahiru detaile kontatuko ditut.

- Aita Villasante **bete betean fraide frantziskotarra zen**. Bere fraide irudi maitagarria oparitu zigun denoi: guztiz Jainkozalea zen eta Maria "Ama" sentitzen zuenaren maitale zintzoa, Frantziskoren jarraitzaile benetan pobrea, Elizaren esaneko zintzoa. Fraide xumea ikusten genuen,

alaia, buru oso argikoa, konplikatua sinpletzen zekiena, langile fin eta metodikoa, lokuluxkak sekula hartzen ez zuena, komentuko bisitariak adiskidetasunez onartu eta laguntzen zituena.

- Izan ere bere bizitza osoan fraide ona izaten saiatu zen eta lortu ere bai. Fraideoi dagokigun bezala Jaungoikoaren bilatzaile eta jarraitzaile zintzoa zen Aita Luis. Eguneroko meza emango zizun, eguneroko otoitz orduak ere beteko zituen koruan beste fraideekin batera, Arantzazuko Ama Birjinari eguneroko errosarioa arratsaldetan.
- Pobreia ere bazen gure Aita Villasante, Asiseko Frantziskoren jarraitzaile zintzoa honetan ere, pobreia ezer gutxi behar izaten zuelako bai jateko, bai jazteko, betiko bere abitu apalarekin ikusiko zenuten zuek ere noiznahi eta nonahi; benetan ezer gutxirekin konformatzen zen horietakoa zen gure aita Villasante.
- Hil zenean deigarria zen, Villasanteren gelaren apaltasuna eta pobrezia. Biblia bat, San Franziskoren idazkiak, euskal liburu batzuk, idazteko makina zahar bat, nota koaderno txiki asko eta apunte zahar dezente, paper ugari bai, eta apenas arroparik eta beste apainduririk bere armairuan. Besterik ez genuen aurkitu.
- Pasadan bezala aipatu dut, baina berriz esango: Aita Villasante **metodikoa** zen, oso metodikoa ere eta horrela uler daiteke egin zituen beste lan egin ahal izatea. Izan ere, urtetan, baina urte askotan, eguneroko bizitza eta ordutegi berdina egin ahal izan zuen. Euskaltzaindian edo beste lekuren baten zeuzkan bilerak kenduz gero, bestela goizean oso goiz jaiki, bere esandako eguneroko otoitzaldiak, bere gelan orduak eta orduak ikasten, eskolak prestatzen eta idazten; beste fraideekin ere biltzea gustatzen zitzaion solasaldi patxadazkoa emanez; ostegunetan, ohi zen bezla, arratsaldea libre mendirako edo paseo luzeago bat eman ahal izateko; egunero arratsaldeko ordubeteko paseoa ere beretzat "sakramentu" bat bezala bihurtu zen; eta iluntzean berriz ere bere errosarioa eta bezpera otoitzak eta hala bukatzen zuen eguna. Eta hori gaur, bihar eta beti; gaztetatik hil zen artean.
- **Aita Villasante estimatua zen gure artean**, komentuan, barruan oso entzuten zekien fraide ona zelako, komestantea, gauza askotaz interesa zuena, harremanetarako erraza eta maitagarria egiten zena. Ez

bakarrik komentu barruan, auzoan ere estimatua zen oso. Ez zeuzkan ahaztuta aita Luisek Arantzazu auzoko baserriak. Banan-banan bisitatzen zituen, gozatu egiten zuen bertakoekin patxadaz hitz egiten, hainbat folklore gai jaso zituen haien ahotatik, bertso liburuak argitaratu... Maite zituen eta beraiek ere maite zuten: "*Hemen dator gure aita Villasante...*", egin ohi zioten harrera. Basilika eraikitzen ari ziren kanpoko langileak ere adiskideki hartzen zituen, beren barrakoietara joan aita Lasarekin batera eta eskola ematen zien, eta igandeetan Meza kurtzepizioko kaperan, lotsatu egiten baitziren gaizki jantzita elizara jaisten.

- Labur bilduz esango nuke Aita Villasante benetan estimatzen genuela eta estimatua zela. Gizon txiki handia, langile amorratua eta denekin leiala. Eta hala ere harrotzen ez zen horietakoa, apala, xumea, esker onekoa.
- Horrexegatik, gaur nire eta gu Arantzazuko frantziskotarron esker ona adierazi nahi dizuet berriz ere ALDUN NAGUSI, JOSE LUIS BILBAO, ANDRES URRUTIA EUSKALTZAINBURU eta, JAKINeko buru eta bihotz den JOAN MARI TORREALDAI lagunari eta hemen bildu zaretenoi.
- **Mila esker**, Aita Villasante gogoan hartu duzuelako eta bere obra digitalizatu eta besten esku uzteko erabakia hartu duzuelako.

En primer lugar, una palabra de saludo y agradecimiento a D. José Luis Bilbao, Diputado General de la Diputación de Bizkaia por comprometerse a financiar este trabajo de digitalización y preparación para ser editado de la obra de nuestro P. Luis Villasante. El mismo saludo y agradecimiento a D. Andres Urrutia, presidente de Euskaltzaindia también por su interés y colaboración.

No es el caso de contar toda la vida del P. Luis Villasante. Solo quiero recordar aquí que cuando el P. Vilasante era joven sacerdote, vino en cierta ocasión aquí a Bilbao y que don Federico Krutwig le recibió en su casa; parece que Federico Krutwig quedó impresionado de la humildad e inteligencia de este fraile franciscano y también de su deseo de apoyar el euskara, por lo que delante de Azkue, le dijo a éste que habría que hacerle miembro de Euskaltzaindia.

Como se sabe, en 1968 fue nombrado Presidente de la Real Academia de la Lengua Vasca, responsabilidad que mantuvo durante 18 años; aunque le tocaron momentos de máxima problemática

lingüística, además que social y política, en general, creemos, fue una figura valorada y estimada.

Afrontó con sabiduría, tesón y humildad la unificación de la lengua vasca, y la modernización de su gramática. Él fue uno de los promotores y artífices de la unificación del euskera.

Publicó más de **30** libros y más de **500** artículos en revistas populares y científicas sobre temáticas bien diferentes. Escribió varios libros y muchos artículos en torno al santuario de Arantzazu: publicó una historia detallada del mismo: "*Santa María de Arantzazu, Patrona de Gipuzkoa*"; en 1966 editó por primera vez la "*Historia de Arantzazu*" que el franciscano alavés Fray Gaspar de Gamarra escribiera en 1648. Colaboró en la revista "*Arantzazu*" desde 1949 hasta 1995.

Como teólogo, además de la sinopsis de sus lecciones, publicó en euskera una amplia trilogía: Dios, Jesucristo, Iglesia; y muchos artículos y estudios sobre diversas materias. Publicó también varios estudios sobre diversos personajes de la historia vasca. Para el estudio del euskera tuvo mucha trascendencia el que realizó sobre la famosa obra GERO de Pedro de Axular. Desde su tesis doctoral en Comillas, dedicó especial atención a la vida y a la doctrina mariana de María de los Ángeles Sorazu, concepcionista franciscana de Zumaia, cuya causa de canonización está introducida; a ella dedicó, en euskera y castellano, una decena de libros, y muchas conferencias y artículos en revistas.

Pero, por encima de todo, Villasante era siempre **un fraile menor**, un franciscano de verdad: destacaba por su sencillez y humildad, por su laboriosidad y uso pobre de las cosas, como lo han hecho notar quienes le conocían de cerca.

Los que le conocimos en Arantzazu destacamos además en él su ser un hombre enormemente **metódico**, así es como se explica que pudiera escribir tanto y llegara a tantas cosas. Bajo su humilde apariencia escondía una inteligencia clara y una gran capacidad de trabajo.

En contraste con su actitud tan innovadora en cuanto al euskera, entre nosotros hay quien dice que en cambio en materias de teología y espiritualidad era menos innovador, por lo cual no disimulaba su sufrimiento personal ante la marcha de algunos asuntos de la Iglesia y de nuestra propia Orden franciscana y de nuestra Provincia.

Fue leal con su conciencia y fiel a su vocación franciscana. Fue siempre un fraile de Arantzazu humilde, ferviente, devoto de Santa María de Arantzazu, hombre de Dios y teólogo tradicional, estudioso de las figuras de la Iglesia, especialmente de la Madre Sorazu y de su doctrina,

Villasante vivió y trabajó en Arantzazu durante 53 años, que él

aprovechó en actitud de pleno rendimiento hasta los tres últimos en que quedó afectado por una enfermedad neurológica.

Hoy, pues, en nombre de los franciscanos de Arantzazu agradezco de corazón a la Diputación de Bizkaia en su máximo responsable el Diputado General D. José Luis Bilbao por esta iniciativa de financiar la digitalización de la obra de Aita Villasante; igualmente agradezco en nombre de los franciscanos de Arantzazu al Presidente de Euskaltzaindia, D. Andrés Urrutia; y a Juan Mari Torrealdai y su equipo de JAKIN por acometer esta obra delicada y ardua.

En nombre de los franciscanos de Arantzazu, muchas gracias a todos por tomar en consideración a un hermano nuestro, humilde franciscano de Arantzazu, como fue Aita Villasante.

Joxe Mari Arregi Guridi, ofm
Bilbo, 2008ko azaroak 25